

14-11-2021

Datorren azaroaren 14an ibilbide hau burutuko dugu, Lekeitiotik abiatuta (irteera 7:30 Termibus Bilbon A3512 autobusa) goizeko 9:00etan. Ibilbideak 4 ordu eta 30 minutuko iraupena du. Hasteko Otoio mendiaren gailurra egingo dugu (396m), handik pinudien pistetatik Ispasterreara helduko gara, Santiagoko basiliza pasatuta, eta zelaiak, baserrien auzoak eta pinuetako basoak zeharkatuta, Eako Olatik eramango gaituen bidezidorra hartuko dugu, erreka baten ondotik. Ea herrian kaleetan zehar sartuko gara hondartzara heldu arte, bertan kostaldetik doan bidexka hartuko dugu, itsasoaren bista paregabeak izango ditugu tarte baten, pinudi baten sartu arte, hau zeharkatuz Natxitun agertuko gara non Nana ortuan bazkari popularra egingo dugun (8 € indabak eta entsaladak, 20 pertsonentzako lekua dago eta plaza erreserbatu behar da formularioaren bidez).

17 kilometroko ibilbidea da, 770 metro desnibelarekin gorantza eta 600 metrokoa beherantza. Teknikoki ibilbide erreza izanik forma fisika ona eskatzen duen irteera da.

Menditik ibiltzen ohituta dauden 8 urtetik gorako umeentzako irteera egokia da.

Mendiko oinetakoak eta hotzarako arropa eraman behar da, udazkenean gaude eta zati batzuk lokaztuta egon daitezke. Ura eta zeharkaldian pikatzeko zerbait eraman behar da baita ere.



Bazkaltzen geratzen direnentzat 17:15etan aurreikusita dago buelta (Natxitua) autobusez.

Ibilbidearen zati batzuk bakarrik egitea posiblea da, Bilbora doan autobusa hartzeko aukerarekin, hurrengo puntuetan: Ispaster (13:00), Ea (15:10), Natxitua (15:15)

Eguraldi iragarpena ikusi Egunero berrizten da

Compártelo:

[Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)

[Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota Egun bakarreko zeharkaldia oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela +770 - 600

Luzera 17 km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

7:30 Termibus. -2 solairua, A3512-Bilbao-Lekeitio autobusaren aurrean.

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Lekitto - Natxitxu

Irteerarako izena emateko azken eguna

12/11/2021

Jakin beharreko kontu teknikoak

Erdi mailakoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

0na

Material tekniko beharrezkoa

Txubaskeroa, hotzaren kontrako arropak, ura eta pikatzekoa

Bestelako oharrak

Garraio publikoan egingo dogun irteera izanik gogoratu Barik eta maskarila eramatea.

Argibide gehigatarako

gailurra.mt@gmail.com edo 622371737(Leire)

